

Hizkuntza indoeuroparren familia Europan		
FAMILIA	ADARRAK	HIZKUNTZAK
INDOEUPARRA	Hizkuntza germaniarrak	alemana daniera ingeleza suediera
	Hizkuntza erromanikoak	portugesak katalana galegoa okzitaniera gaztelania frantsesa
	Hizkuntza eslaviarrak	poloniera txekiera errusiera bulgaria
	Hizkuntza baltikoak	lituaniera letoniera
	Hizkuntza zeltak	galesera irlandera bretoiera eskoziera
	Hizkuntza grekoa	

Hizkuntza uralo-altaikoen familia Europan		
FAMILIA	ADARRAK	HIZKUNTZAK
URALOALTOA	Uralikoa edo fino-ugrikoa	laponiera hungariera suomiera estoniera
	Hizkuntza altaikoa	turkiera

Euskara		
FAMILIA	ADARRAK	HIZKUNTZAK
EUSKARRA	Euskara	Euskara

Latinaren banaketa dialektala. Euskara hizkuntza erromanikoz inguratutik.



4. EUSKARA, MUNDUKO HIZKUNTZEN ARTEAN

Inguruko hizkuntzen artean kokatzeko, jo dezagun lehenik munduko hizkuntza guztien mapa orokorrera (6). Hizkuntzalaritza azterketei esker, mintzairen arteko ahaidetasunak eta jatorri komunak aurkitu ahal izan dira. Ikerketa horien ondorioz, esan daiteke munduan hamazazpi hizkuntz familia besterik ez direla. Familia horietako bat, grafikoan (7) azaltzen den moduan, euskarak bakar-bakarrik osatzen du, ez baitaio mundu osoan ahaiderik ezagutzen.

Hamazazpi familia horietatik, egungo Europan hiru koka ditzakegu: a) indoeuroparra, b) uralo-altaikoa eta euskara. Lehenengo biek, mendeak joan mendeak etorri, zenbait adar eman dituzte eta adar horietatik hizkuntza batzuk bereizi dira.

Alboko koadroetan Europako hizkuntza bizi batzuk baino ez ditugu aipatu ezen, hizkuntza eta dialekto guztiak barne hartzen baditugu, gure kontinentean ia bostehun dira mintzaira guztiak; den-denak –gurea izan ezik– familia handi bi horietan sartzen dira: indoeuroparra eta uralo-altaikoa.

Euskal hizkuntza, beraz, sailkatu edo ahaidetu barik geratzen zaigu, haren ezaugarri nolobait bitxiak ez baitatoz bat, jatorrian, inongo hizkuntz familiarekin. Izan ere, euskara da antigoaleko europar hizkuntza zaharretatik bizirik dirauen bakarra, antzina-antzinako erlikia, mendez mendei oldar handiei aurre egin eta irautea lortu duena. Oldar handi horiek bi izan dira nagusiki:

1. Kontinentearen **indoeuropartzea**, indoeuropeizazioa.
2. Europako hegoaldeko **erromanizazioa**, erromatarren konkista militarrek eta kolonizazioek ekarri zuten latinaren zabalkundeaz.

Jakingarriak

- Europan 54 hizkuntza daude bizirik.
- Euskara da Europan geratzen den hizkuntza aurre-indoeuropar bakarra.
- Duela 5.000 urtetik hona, indoeuropar herrien inbasioek Europako antzinako hizkuntza guztiak desgertarazi zituzten: iberiera, etruriera, piktoa...
- Gaur egun, Europan hiru hizkuntz familia: a) indoeuroparra (hizkuntza gehienak); b) uralo-altaikoak (hungariera, suomiera, estoniera, laponiera eta turkiera); eta c) euskara.

5. JATORRIA ETA BALIZKO AHAIDEAK

Euskararen isolamenduak edo balizko ahaiderik ezak ikergai interesgarria bihurtu du eta hizkuntzalari eta ikertzaile askoren interesa piztu du. Euskararen jatorriari buruz ikertzaileek eginiko teorien artean lau ezagunenak aipatuko ditugu (10):

1. EUSKARA-IBERIA teoria (11). Iberiera, herri indoeuroparren inbasioen aurretik penintsulan zegoen hizkuntza izango litzateke giltza. Iberiera baztertuz eta murriztuz joango zen, euskal lurraldeetan isolaturik geratu arte; beraz, euskara iberieraren hondar bizia baino ez litzateke izango, penintsulan zabalkunde handia izan zuen mintzaira horren lekuko bizia.
2. KAUKASO aldeko hizkuntzen teoria (Georgiera). Hizkuntza horiek ere ez dira indoeuropar familiakoak eta egituran nolabaiteko antza dute euskararekin.
3. Hizkuntza BEREBEREEN teoria (Atlas mendiak). Afrika iparraldean mintzatzen diren hizkuntza horiek badituzte antzekotasun batzuk euskararekin, lexikoan bereziki.

4. BERTOKO jatorriaren teoria. Besteak beste, Joxe Migel Barandiaran (12) arkeologo eta etnologoaren ikerketetan oinarritua dago. Euskal gizona, euskal etnia ez "dator" inondik –"Gu ez gara inongo" esaten zuen berak–; aitzitik, bertan eratu da, bertan sortu zen duela bost mila urte gutxienez, Cro-Magnon gizakitik "gaurko" euskal gizakia mendez mende bilakatuz. Urtiagan (Gipuzkoa) aurkituriko burezorra ezari-ezarian gertaturiko bilakaera baten katenbegia izan liteke (13): Kristo aurreko 9000. urtekoa izanik, garezurrak Cro-Magnon eta euskaldunen, bi prototipoen ezaggarriak nabari ditu. Eta horrek bertan garatu den bilakaera bat dela erakusten du.



Iturria: Orbitepan. Xamar. Pamiela, 1992



Iturria: Euskara, euskaldunen hizkuntza.



Botorritako brontzea. Iberierazko idazkera.

Iturria: Euskara, euskaldunen hizkuntza.

Jakingarriak

Bosch Gimperak idatzi zuen bezala, «euskal gizakiak bere nortasuna definituta zuen Neo-eneolitoan, hau da, K.a. III. milurtean, eta badirudi bere erroak Paleolitoan zituzten bertakotarren lekuko eboluzioa dela».

Argazkian, Urtiagako burezorra (Gipuzkoa). Cro-Magnondar gizakiok euskal gizakirako katebegia; K.a. 9.000 urte. Itxura guztiz, betidanik-edo, hizkuntza eta hemengo historia elkarrekin ibili dira.




Iturria: Euskara, euskaldunen hizkuntza.



Munduko arraza nagusiak. Kaukasikoen prototipo edo eredu gisa, euskaldunak.

Iturria: E



Luca Cavalli-Sforza.
Geneva, 1922.


Genetika ikertzen hasi zen. Munduan eta bereziki Europan aplikatu zuen herrien eta arrazen aldakortasuna frogatzeko ikerketa.

Ikerketa horien ondorioz egin zuen topo euskaldunekin eta euskararekin, lehenago ez zituen (gintuen) ezagutzen eta.

- *La genética de las poblaciones humanas.* (1981)
- *History and Geography of Human Gens.* (1991)
- *Quiénes somos. Historia de la diversidad humana.* (1994)
- *Genes, pueblos y lenguas.* (1997)

Jakingarriak

- Cro-magnon gizakiaren ezaugarri nabarmenak: arterako gaitasuna, hizkuntza, gizarte-egitura, mitoen mundua...
- Santimamiñeko kobazuloak 1878an aurkitu zituzten. Hasieran pinturen antzintasuna zalantzan jarri zen: perfektuegiak ziren.



Iturria: *Lucha de Lenguas en la Península.* A. Tovar, 1968. In *Euskara, euskaldunen bizkuntza.*



Iturria: *Euskara, euskaldunen bizkuntza.*

Euskaldunen berri ematen lehena Tito Libio erromatarra izan zen, K.a. 76. urtean. Ordutik aurrera ugari dira euskaldunei buruzko aipamenak erromatarren agirietan. Euskal Herrian erromatarrek *Ager Vasconum* eta *Saltus Vasconum* bereizten zituzten. *Ager Vasconum* lautada zen batez ere, Ebro eta Aturri ibai nagusien inguruak; eremu horretan kokatu ziren. *Saltus Vasconum* (lurralde menditsua) ez zen interesgarria erromatarrentzat, nekazaritzarako ez baitzuen aberastasunik.

bai Rb negatibodun odol tipoaren tasarik handiena. Euren bizkuntzaren jatorria ezezaguna da eta ezin koka dezakegu inongo sailkapenetan (...) Izan ere, euskaldunak dira seguruenik Cro-Magnon tipoaren ondorengo zuzenenak (burbilenak), bain zuzen ere Europako lehen gizaki modernoak.» (Luca Cavalli-Sforza)

6. BILAKAERA HISTORIKOA; HARREMANAK BESTE HERRI ETA HIZKUNTZA BATZUEKIN. LITERATUR MUGIMENDUAK.

Euskara noiztik?

Euskararen antzintasuna neurtzea edo zehaztea oso zaila da. Hala ere, antropologo, historialari eta hizkuntzalari gehienek ustez, Neolito Aroan bilatu behar dira sustraiak, orain dela 5.000 edo 10.000 urte, ez baitirudi hizkuntza hau inondik etorria edo ekarria izan denik.

K.a. 500-1000 urte

Iberiar penintsulan zenbait herri edo etnia zeuden (16):

- Iberiarrak: Afrika iparraldean bide zuten jatorria. Ekialde osoan kokaturik zeuden.
- Tartesiarrak: Andaluzia behean eta Portugal hegoaldean bizi ziren.
- Feniziarak: hegoaldeko kostaldean kokatuak. Hauen ondorengoak ziren kartagotarrek penintsulako hegoaldean areagotu egin zuten lehenengo eragin linguistikoa, besteak beste *hispania* hitza emanez, feniziar hizkuntzan "untxi-lurra" esan nahi duena.
- Euskaldunak ere bertan ageri dira, leinu edo *gens* modura Pirinioen bi aldeetan (17): akitaniarrak, baskoiak, barduliarrak, karistiarrak eta autrigoiak.
- Bestalde, indoeuopar jatorriko bi herri-hortaz, "berriagoak" penintsulan-, zeltak eta lusitanoak oldarka sartzen hasiak ziren, mendebaldean kokatuz.

Mapan (15) ageri da gutxi gorabehera non bizi ziren orain 2.500 urte inguru penintsulako etniak, bakoitza bere hizkuntzarekin: iberiera, zeltiberiera, tartesiera, feniziera, lusitaniera, euskara eta grekera Mediterranioko kokaguneetan (Ampurias, Rosas...); euskararekin batera, horiek guztiak osatzen zuten erromatarren aurreko hizkuntza multzoa.

K.a. III. mendea

Erromatarrek itsasontziz Ampuriasen sartu zirelarik (K.a. 218), iberiar penintsularen erromatartzea hasi zen, bi mende luze iraungo zuena. Erromatartzearen oldarez eta eraginez, penintsulako populazioen jatorrizko hizkuntzak ahulduz joan ziren, eta apurka-apurka latinak

moldaturiko hizkuntza berriak sortu ziren: erromantzeak edo hizkuntza erromanikoak. Prozesu honi, erromatarren konkisten ondorio den bilakaera honi, *latinizazioa* deitzen zaio.

Euskal Herriak, ostera, eutsi egin zion oro har bere hizkuntzari; hala ere, hegoaldeko erromatarren kokaguneen ondoko lurraldeak latinizatu egin ziren: elebidun bihurtu ziren. Euskarazko lehen inskripzioak Akitanian agertu ziren, erromatarren garaian, hilarrietan-eta: *ilvrberrixo, anderexo, astoilun, corritse, senicco...*

Euskaldunek ez bide zuten erromatarrekin gatazka larririk izan; aitzitik, nekazaritza teknika asko ikasi zizkieten eta euskarak bai latinetik eta bai honen ondorengo erromantzeetatik mailegu ugari hartu zuen, apurka-apurka bere sistema fonetikora egokituko zituena. Euskararen egitura sintaktikoak, berriz, nortasun propioarekin jarraitu du, eraginak gorabehera.

Aipa ditzagun euskarak latinetik harturiko mailegu zaharrenetariko batzuk:

<i>pace</i>	bake
<i>pice</i>	bike
<i>baccilu</i>	makila
<i>ficu</i>	piku
<i>piper</i>	piper
<i>angellu</i>	angelu
<i>rege</i>	errege

<i>mutu</i>	mutu
<i>pluma</i>	luma
<i>ceresea</i>	gerezi
<i>causa</i>	gauza
<i>gente</i>	jende
<i>cepula</i>	kipula
<i>placet</i>	laket

Euskarak hitz horiek eta beste asko latinetik zehazki noiz hartu zituen jakitea ez da erraza; ezta latinetik barik erromantzeetatik hartu ote zituen, hau da, mende batzuk geroago. Baina garbi dago ondare lexikal hori, latinetikoa, arlo askotan sartu dela euskarari:

<i>merce</i>	merke
<i>calciata</i>	galtzada
<i>carricare</i>	karrika
<i>linu</i>	liho
<i>augustu</i>	uzta
<i>mantile</i>	maindire
<i>lapidev</i>	lapiko
<i>cruce</i>	gurutze

<i>schola</i>	eskola
<i>buccela</i>	okela
<i>castanea</i>	gaztaina
<i>sartagine</i>	sartagin
<i>caldaria</i>	galdara
<i>ecclesia</i>	eliza
<i>infernu</i>	infernu
<i>anima</i>	arima

Gure Aroko (K.o.) V. mendea

Erromatar inperioa deusezten ari zela, herri germaniar multzo batzuk (bandaloak, sueboak eta alanoak) Pirinioak zeharkatzeari ekin zioten.

VI. mendean, frankoek iparraldetik bultzaturik, bisigodoak sartu ziren penintsulan. Hauek, germaniarren artean nolabait aurreratuenak edo "zibilizatuena", Erresuma Bisigodoa (18, 19) sortuko zuten, penintsula ia osoa menpe hartu ondoren. Erromatarrek ez

Jakingarriak

- Hizkuntza da pentsamenduaren euskarria.
- Izendatzen ez den errealitatea, izenik ez duena, ez da existitzen. Euskarazko esarak: *«Izenak, izana», «Izena duen guztia omen da»*
- Harro egoteko moduko hizkuntza dugu, ez hobe ez txarragoa: geurea.
- Hizkuntzak identifikatzen gaitu.

Jakingarriak

- XVII. mendean Islandiara joandako euskal arrantzaleek hango biztanleekin *pidgin* bat sortu zuten: euskara-islandiera.
- Kanadan, irokesak, inuit edo eskimalak eta abnaki indiarrekin ere *pidgin* bat sortu zuten euskal arrantzaleek.
- 1600 aldera, ingelesak eta frantsesak iritsi zirenean bertako biztanleek "*adeskidex, adeskidex*" esanez egiten zieten ongietorri.
- 1625. urteko kronika batek dioenez, arrantzaleek indiarrei "*Zelan zaude?*" galdetzean, haiek "*Apezak bobeto*" erantzuten omen zuten.
- *Pidgin* islandiarra: "*Sumbatt galsardia for?*" / *For how many shocks?*"



Iturria: The Times Atlas of World History



Iturria: Tz.